



## URBANIZAZIO-OBREETAKO PROIEKTUA IDAZTEA

### Bikaintasun-maila

### Prozedura irekiaren bidez kontratatzeko ingurumen-irizpideak

#### 1. Kontratuaren xedea

Urbanizazio-proiektuaren idazketa kontratatzeko pleguan ingurumen-irizpideak sartzen hasi aurretik, erakunde publiko sustatzaileak aurrez erabaki batzuk hartu beharko ditu, urbanizazio berriaren ingurumen-inpaktu globalari eragingo diotenak.

#### 1. koadroa

Kontratuaren xedea da [sartu proiektuaren izena] urbanizazio-proiektuaren [proiektu-idazketa eta/edo zuzendaritza fakultatiboa]ren zerbitzua kontratatzea.

Proiektua idazteko, kontuan hartuko dira ingurumenaren aldetik jasangarria den eraikuntzaren printzipioak eta ekodiseinuaren eta ekonomia zirkularraren printzipioak, ingurumena eta osasuna gehien errespetatzen dituzten produktuak, materialak eta eraikuntza-sistemak erabiltzeko asmoz, bai eta eraikuntzaren bizi-ziklo osoko inpaktuak minimizatzeko konponbideak ere (diseinua, exekuzioa, erabilera, eta, azkenik, berritzea edo suntsitzea).

Dokumentu honetan **bi aukera** proposatzen dira mota horretako lizitazioetarako ingurumen-irizpideak ezartzeko. Beraz, proposatutako pleguaren xedearekin bat etorriz, bi bide hauen artean aukeratu beharko da eraikuntza berri baten oinarritzko proiektua edota proiektu exekutiboa idazteko lizitazioetan ingurumen-baldintzak sartzeari ekiteko:

**1. AUKERA:** “Urbanizazio-proiektuen garapen jasangarrirako gidaliburua”ren (<http://construccionsostenible.eus>) metodologiaren bidez lortutako kalifikazio-etiketan oinarritutako balorazioa, pleguko irizpide baloragarrien atalerako tresna bakar eta bateratu gisa.

Sprilur-ek aipatutako gidarekin –“Urbanizazio-proiektuen garapen jasangarrirako gidaliburua”– lotuta ezarritako DURBE bereizgarriak (“Ingurumenaren aldetik jasangarria den urbanizazioaren bereizgarriak”) urbanizazio-proiektuaren ingurumen-jasangarritasunaren maila bereizten du.

Urbanizazio-proiektu bat garatzeak dituen ezaugarriak direla eta, bereizgarriaren bi kudeaketa-fase ezartzen dira: lehenengoa, urbanizazio-proiektua idazteko fasean

aurre-bereizgarria edo edo behin-behineko zigilua lortzea ahalbidetzen duena, behin betiko zigilua lortzeari lotuta obra-fasean neurriak gauzatu direla egiaztatu ondoren.

**2. AUKERA: Erosketa eta kontratazio publiko berdeko irizpide zehatzak** aplikatzea. Irizpide horiek modu jasangarrian eraikitze eta birgaitze aipatutako gidaliburuetatik datoz, eta, beraz, kalifikazio-etiketa ofiziala lortu beharrik ez duten gidaliburuak partzialki aplikatzen dira.

Lehen aukerak proiektuaren balizko inpaktuen multzoa modu holistikoa hartzen du, eta, beraz, hautatutako irizpide-maila berdina bada ere, 1. aukeraren ikuspegia, oro har, integralagoa da. Hala ere, 1. aukerak eskatzen du bai lizitatzailerik eta bai lizitaziodunek gidak eta tresna zertxobait ezagutzea, eta, horrez gain, berariaz kontuan hartu behar diren ingurumen-irizpideei ez ekiteko arriskua dago.

Gainera, aipatutako gidak modu batean edo bestean erabiltzen direnean, arreta berezia jarri beharko da ingurumen-irizpide jakin batzuk bikoiztuta ez ezartzeko. Hori bereziki garrantzitsua da esleipen-irizpideetan, inkoherentziarik egon ez dadin eta irizpide bererako bi aldiz egindako balorazioak ere saihesteko.

## 2. Hautatzeko irizpideak: kaudimen teknikoa eta profesionala

Proiektua idatzi duen taldeak modu jasangarrian eraikitako proiektuak egiteko aurretiazko ezagutza eta esperientzia edukitzea oso garrantzitsua denez, kaudimenaren atalean klausula hau sartzea gomendatzen da:

### 2. koadroa

**Ingurumenaren aldetik jasangarriak diren urbanizazio-proiektuak diseinatzeko eta idazteko jardunbide egokiak** modu sistematikoan aplikatuko direla bermatuko da. Jardunbide horiek honela egiazta daitezke:

- ekodiseinuaren kudeaketa-sistemaren ziurtagiria, eraikuntza-proiektuak idazteko ISO 14006 arauaren arabera, edo ingurumenarekiko jasangarria den proiektuaren diseinua eta idazketa bermatuko dituen kudeaketa baliokide baten ezarpenaren egiaztagiria.

eta

Proiektu-taldean, gutxienez, **eraikuntza jasangarriaren arloko espezialista bat** egongo da. Espezialitate hori egiaztatu beharko da:

- LEED, BREEAM, PASSIVHAUS edo HQE bezalako nazioarteko entitateek egindako homologazio edo ziurtagiri pertsonal zehatz baten bidez edo beste erakunde batzuek emandako gai honi buruzko prestakuntzaren bitartez, hala nola, <http://construccionsostenible.eus>-n dauden "Ingurumen Iraunkorraren Eraikuntza eta Birgaitze Gidak" edo "Ingurumen Iraunkorraren Urbanizazio eta

Berrurbanizazio Gidak”-ei buruzko adituen prestakuntza ikastaroak.  
edo

- Energia-efizientziarekin eta/edo eraikingintza eta eraikuntza jasagarriarekin lotutako gaietan hirugarren mailako titulua izatea.

Enpresa eskaintzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- ekodiseinuaren kudeaketa-sistemaren ziurtagiria edo akreditazio-dokumentazioa, ISO 14006ren arabera, edo ingurumenarekiko jasagarria den proiektuaren diseinua eta idazketa bermatuko dituen kudeaketa-sistema baliokide bat.
- Espezialistaren curriculuma eta nazioarteko nahiz tokiko erakundeak emandako akreditazioaren kopia edo eraikuntza jasagarriarekin lotutako hirugarren mailako titulazioaren kopia.

### 3. Zehaztapen teknikoak (nahitaez bete beharrekoa)

#### 3. koadroa

- **Hondakinak Kudeatzeko Azterketan**, EEHak sortzeko gehieneko helburua eta % 80ko gutxieneko balorizazio-helburua hartuko dira kontuan azterketa horretan egindako hondakinen aurreikuspen osoarekiko.
- Proiektuaren barruan, **ingurumen-kudeaketako azterketa bat** idatzi beharko da obra gauzatzeko, lanak egin bitartean aplikatu beharreko neurriak jasoko dituen, ingurumen-inpaktuak ahalik eta txikienak izan daitezen. Azterketa obra exekutatzeko plegu teknikoaren parte izango da, eta exekuzioaz arduratzen den enpresak garatu beharko duen ingurumen-kudeaketako programa espezifikoaren oinarri izango da.

Azterketa egiteko, lehenik eta behin ingurumen-alderdiak identifikatu eta ebaluatu beharko dira, bai ohiko lanetatik eratorritakoak, bai ingurumen-inpaktuak eragin ditzaketen istripu eta gorabeheren arrisku-egoeretatik eratorritakoak. Horren guztiaren ondorioz, prebentzio-neurriak eta jarduketa-ildoak ezarri beharko dira, hala nola:

- Obrako hondakinen inbentarioa egitea (geldoak, baloragarriak eta bereziak/arriskutsuak) eta kudeaketa zuzenerako eta gaikako bilketarako neurriak definitzea halakoak berrerabiltzeko edo kontrolpean kudeatzeko.
- Uraren, energiaren eta erregaien kontrola eta arrazoizko kontsumoa
- Atmosferara egindako isuriak minimizatzea (hauts moduan, CO<sub>2</sub> eta ibilgailuak eta ibilgailuen nahiz makineriaren beste errekuntza-gas batzuk, usainak, argi-kutsadura, etab.)

- Zaratak murriztea (indusketa-lanak, makina astunak, karga- eta deskarga-lanak, obrako makineria txikia, etab.).
- Landaredia babestea eta isurketak minimizatzea
- Inguruneari eta obraren guneari ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko mugikortasun-neurriak
- Eragindako agenteen komunikazio- eta informazio-ekintzak
- Langileen prestakuntza espezifikoa, lehen aipatutako alderdiak kontuan har ditzaten

Obraren ingurumen-jarraipena egin ahal izateko, ingurumen-kudeaketako azterketak nahitaez barne hartu beharko ditu **monitorizatzeko** neurriak (kontagailuen bidez), eta, gutxienez, obrako ur- eta elektrizitate-kontsumoak erregistratzeko neurriak, bai eta obrako hondakinak gaika biltzeko eta horietako bakoitzean ekoiztako kantitateak erregistratzeko ere.

Era berean, programak checklist bat izango du obra-bisitetan programan sartutako ingurumen-irizpide guztiak betetzeko ikuskapenak egiteko.

- Proiektuan sartzan diren **zurak eta zurezko produktuek** iturri legitimoetatik etorri beharko dute, eta ezingo dira CITESen (Convention International Trade of Endangered Species) jasotako espezie mehatxatuetatik etorri.
- Erabilitako egurra edo zurezko produktuak, hala badagokio, FSCK, PEFCk edo baliokideren batek zehaztutako estandarren arabera, **modu jasangarrian kudeatutako baso-ustiaketetatik** etorriko dira.
- Proiektuak jatorri **birziklatuko agregakinaren** % 30 izan beharko du horretarako erabilera egokietan gutxienez erabilera horietarako aurreikusitako agregakin osoekiko, lotutako nahiz lotu gabeko aplikazioetan, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko urtarrilaren 12ko AGINDUaren arabera (eraikuntza- eta eraipen-hondakinen balorizaziotik sortutako agregakin birziklatuak erabiltzeko eskakizunak ezartzen ditu). Agregakin birziklatua erabiltzeko, material birziklatuak erabilgarri egon beharko du obraren exekuzio materialean nahikoak diren kantitatean eta kalitatean.
- Proiektuak **metal astunik gabeko** –hala nola beruna, barioa, kadmioa, molibdenoa, selenioa, banadioa, zinka edo eztainua– zoladurak preskribatuko ditu; haien ordez, CO<sub>2</sub> eta NO<sub>x</sub> arintzeko gaitasuna duten zoladurak jarriko ditu.
- Proiektuak **energia aldetik aktiboak diren materialak/sistemak** (zoladurak eta itxitura fotovoltaikoak) eta/edo funtzionaltasun bikoitzeakoak (esate baterako, karga elektrikorako puntu gisa aurreidiseinatutako kale-argiak) preskribatuko ditu.
- **Txertatutako energia-adierazlea** (MJ edo kWh) eta urbanizazioaren karbono-aztarna (kg CO<sub>2</sub> bal.) barne hartu beharko ditu proiektuak.

## 1. AUKERA

### 4. koadroa

**Proiektuaren Ingurumen Jasangarritasunaren kalifikazioa kalkulatzeko**, “Ingurumen Iraunkorraren Urbanizazio eta Berrurbanizazio Gidaliburua”ren (<http://construccionsostenible.eus>) metodologia erabiliko da, eta puntuen % 57ko gutxieneko atalasea lortu beharko du.

## 4. Esleipen-irizpideak (irizpide baloragarriak)

Esleipen-irizpideetan xehetasunez zehaztu behar da zein haztapen emango zaion elementu baloragarri bakoitzari, baita hura ebaluatzeko formula edo parametroak ere.

## 1. AUKERA

### 5a koadroa

Proiektuaren **Ingurumen Jasangarritasunaren kalifikazioari** buruz ezarritako atalasearen % 57 **gainditzea** baloratuko da, “Ingurumen Iraunkorraren Urbanizazio eta Berrurbanizazio Gidaliburua”ren (<http://construccionsostenible.eus>) metodologiaren arabera.

[40 puntu arte] baloratuko da atalase hori gainditzea, 97 puntu posibleetara arte, eta puntu bat emango da [% 1] gehigarri bakoitzeko.

Enpresa eskaintzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte akreditazio-dokumentazio gisa: emaitzen fitxa, lortutako puntuazioa eta aplikatu ez diren nahiz aplikagarriak ez diren neurrien justifikazioa, irizpide hauen arabera:

- Irizpide aplikagarriak

[berrikusi SPRILUREn “Ingurumen Iraunkorraren Urbanizazio eta Berrurbanizazio Gidaliburua” eta sartu hemen proiektua idaztean aplikatu beharreko irizpideak, batzuk baztertzailerak baitira]

- Irizpide ez-aplikagarriak

[berrikusi SPRILUREn “Ingurumen Iraunkorraren Urbanizazio eta Berrurbanizazio Gidaliburua” eta sartu hemen proiektua idaztean ez-aplikagarritzat jotako irizpideak]

Irizpide ez-aplikagarrien artean bi tipologia ezarriko dira:

- Ez-aplikagarriak proiektuaren ondoretarako.
- Ez-aplikagarriak lizitazioaren balorazioaren ondoretarako. Azken irizpide ez-aplikagarri horien artean, plegu honetan ezarritako zehaztapen teknikoak sartuko dira, nahitaezkozkat ezarri diren alderdiak ez baloratzeko.

## 2. AUKERA

### 5b koadroa

#### MATERIALAK

- Materialak **lekuan bertan aprobetxatzea eta kanpoko materialak ez sartzea** baloratuko da. [5 puntu] emango dira gehienez ere, hartutako konponbideen eta tokian bertan berrerabilitako materialen azken ehunekoaren arabera.

Enpresa eskaintzaileek, akreditazio-dokumentazio gisa, obran ezarri beharreko neurrien deskribapena eta materialak tokian bertan berrerabiliko diren azken ehunekoaren estimazio bat aurkeztu beharko dituzte.

- **Produktuaren Ingurumen Adierazpena (PIA)** edo baliokidea duten materialen edo hiri-altzarien preskripzioa baloratuko da, eta [1 puntu] emango da PIA edo baliokidea duen eta proiektuan sartuko dela bermatzen den material bakoitzeko, [5 puntu] gehienez.

Enpresa eskaintzaileek PIA edo baliokidea eskatuko zaien material generikoen zerrenda bat aurkeztu beharko dute akreditazio-dokumentazio gisa proiektuaren dokumentazioan.

#### URA

**Euri-urak biltzeko eta berrerabiltzeko** proposamenak baloratuko dira. [1 puntu]rekin baloratuko da edozein erabileratarako birziklatzen diren (ureztapena, garbiketa, etab.) euri-uren [% 10] portzental bakoitza, gehienez [5 puntu]rekin. Ehuneko horren kalkulua izango da proposatutako sistemaren bilketa- eta berrerabilera-ahalmena obra ezartzen den eremurako ezarritako batez besteko plubiometriarekiko.

Enpresa eskaintzaileek urtero birziklatzeko prezipitazioaren eta bolumenaren estimazio bat aurkeztu beharko dituzte.

#### EKONOMIA ZIRKULARRA

- Proiektuan aplikatu beharreko **ekonomia zirkularreko neurriak** baloratuko dira, [5 puntu]rekin guztira. Proiektuan bideragarri aplikatzeko proposatutako neurri bakoitza [puntu 1] baloratuko da.

Enpresa eskaintzaileek proiektuan ezarri beharreko neurrien deskribapena aurkeztu beharko dute akreditazio-dokumentu gisa, bai eta haien banakako inaktuaren estimazioa ere, baloratu beharreko baldintzetan.

#### EKOSISTEMAK

- **Berdegunek edo lorategiak beren bizitza baliagarrian zehar zaintzen eta maximizatzen** dituzten konponbideak baloratuko dira, honako hauek sustatuz:
  - berdeguneak ahalik eta gehien naturalizatzeko konponbideak, klimara

moldatutako espezie autoktonoak erabiliz

- sasoiko lorearen erabilera minimizatuz
- espazioaren diseinua bere funtzioaren arabera arrazoituz; eta eremuaren baldintzak kontuan hartuz (intsolazioa, lurzorua kalitatea, malda, etab.) landare-diaren etapa guztietan (landatzea, hazkundera eta mantentzea) eta urtean zehar egiten diren lanetan (ebakitzea, ureztatzea, hostoak jasotzea, inautzea...).
- Materia organikoa birsartzeko konponbideak.

Puntu 1ez baloratuko da sartutako konponbide bakoitza, [5 puntu] gehienez ere, aipatutako puntuen alde egiten duena eta azken berdegune-azalera handiagoa lortzen duena.

Enpresa eskaintzaileek, akreditazio-dokumentazio gisa, mantendu edo sortu beharreko berdeguneen deskribapena aurkeztu beharko dute, baita proiektua ahalik eta gehien naturalizatzeko proposatutako neurriak ere. Era berean, materia organikoa berrerabili ahal izateko birsartzeko proposatzen diren neurriak ere deskribatuko dira.

- Hauek barnean hartuko dituzten **ureztatze-sistema efizienteak** preskribatzea baloratuko da: orientazioen arabera zonakatzea, tanta bidezko ureztatzea, ordutegien eta estazio plubiometrikoaren arabera kudeaketa eta lurzoruko hezetasun-sentsoreak. Proposatutako neurri bakoitzeko [1 puntu] lortuko da, [5 puntu] gehienez.

Enpresa eskaintzaileek, akreditazio-dokumentazio gisa, proiektuan sartu beharreko ureztatze-sistemaren deskribapena aurkeztu beharko dute.

- **Ekotonoak** zaintzeko eta indartzeko neurriak baloratuko dira, hala dagokionean. Puntu 1ekin baloratuko da habitata, fauna eta flora kontserbatzeko hartutako neurri bakoitza, [5 puntu] gehienez.

Enpresa eskaintzaileek, akreditazio-dokumentazio gisa, ekotonoak kontserbatzeko proposatutako neurrien deskribapena aurkeztu beharko dute.

- Lurzorua **ahalik eta iragazkortasunik handiena mantentzeko eta uraren ziklo naturala berrorekatzeko konponbideak** baloratuko dira (berdeguneak, zoladura iragazleak, drainatze jasangarriko hiri-sistemak, etab.).

Enpresa eskaintzaileek, akreditazio-dokumentazio gisa, proiektuan sartu beharreko konponbideen deskribapena eta haiekin kudeatutako jariatze-emariaren estimazio bat aurkeztu beharko dituzte; [1 puntu] lortuko da hobekuntzaren [% 10] bakoitzeko, [5 puntu] gehienez.

## ENERGIA

- Urbanizazioaren etorkizuneko eraikinetako ur-horniduraren instalazioarekin lotutako **energia geotermikoko instalazio** bat aurreikusteko proposamena

baloratuko da, [5 puntu] gehienez ere.

Enpresa eskaintzaileek aurkeztutako konponbidearen deskribapena eta proposamenaren hasierako eskema bat aurkeztu beharko dituzte akreditazio-dokumentazio gisa.

## 5. Kontratua gauzatzea

### 6. koadroa

#### Baliabideen erabilera efizientea

- Formatu digitaleko entregak lehenetsiko dira paperezko formatuen aldean.
- Proiektuaren arduradunak espresuki hala eskatzen badu bakarrik egongo dira paperean; kasu horretan, gehienez ere 2 kopia aurkeztuko dira, eta kopiak paper birziklatuan aurkeztuko dira.
- Egingarria denean, planoak A3 formatuan inprimatuko dira.

## 6. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintzak aurkeztea

Eskaintzen eta aurkeztutako dokumentazioaren ebaluazioa errazteko, dokumentuak aurkezteko modu zehatz bat eskatuko da pleguan. Informazio hori lizitazioaren iragarkian zehaztuko da, balizko lizitatzaillei informazioa garaiz helarazteko.

### 1. AUKERA

#### 7a koadroa

Enpresa lizitatzaille bakoitzak ingurumen-dokumentazio hau aurkeztu beharko du, hemen zehazten den moduan:

- a) Lan-plana eta/edo proiektua deskribatzen duen memoria.
- b) Ingurumen-irizpideak baloratu ahal izateko, sartu beharko dira “Ingurumen Iraunkorraren Urbanizazio eta Berrurbanizazio Gidaliburua” (<http://construccionsostenible.eus>) aplikatzearen ondoriozko dokumentua, emaitzen fitxa, lortutako puntuazioa eta aplikatu ez diren nahiz aplikagarriak ez diren neurrien justifikazioa.
- c) Hornitzaileentzako checklist-a, behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Enpresa lizitatzailleak hitzemandako nahitaezko zehaztapenak eta baloragarriak betetzen direla bermatzen duen akreditazio-dokumentazio guztia erantsiko da.

## 2. AUKERA

### 7b koadroa

Enpresa lizitzaile bakoitzak ingurumen-dokumentazio hau aurkeztu beharko du, hemen zehazten den moduan:

- a) Lan-plana eta/edo proiektua deskribatzen duen memoria. Ingurumen-irizpideak baloratzeko, honako hauek jaso beharko ditu:
  - Ur-horniduraren instalazioarekin lotutako energia geotermikoko instalazio bat aurreikusteko hartutako konponbidearen deskribapena eta proposamenaren hasierako eskema.
  - Materialak tokian bertan berrerabiltzeko hartutako konponbideen deskribapena eta tokian bertako berrerabileraren azken ehunekoaren kalkulua.
  - PIA edo baliokidea eskatuko zaien material generikoen zerrenda proiektuaren dokumentazioan.
  - Urteko prezipitazioaren eta birziklatze-bolumenaren estimazioa.
  - Proiektuan aplikatu beharreko ekonomia zirkularreko politiken eta neurrien zerrenda eta inpaktu indibidualaren eta globalaren zenbatespena.
  - Mantendu edo sortu beharreko berdeguneen deskribapena eta proiektua ahalik eta gehien naturalizatzeko proposatutako neurriak.
  - Ekotonoak zaintzeko eta indartzeko neurrien deskribapena.
  - Proiektuan sartu beharreko konponbideen deskribapena eta haiekin kudeatutako jariatze-emariaren estimazioa.
  - Ureztatze-sistemaren eta prestazioen deskribapena.
- b) Hornitzaileentzako checklist-a, behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Enpresa lizitzaileak hitzemandako nahitaezko zehaztapenak eta baloragarriak betetzen direla bermatzen duen akreditazio-dokumentazio guztia erantsiko da.